

## HOROSKOPOA



### **ARIES (martxoak 21-apirilak 20)**

Zergatik ez duzu orain itsasoan bainu bat hartzen? Kanpoan baino tenperatura epelagoa egiten du.



### **TAURUS (apirilak 21-maiatzak 20)**

Pentsatu duzu urte berrirako desioren bat? Benetan eskatuz gero, datorren urtean bete egingo da.



### **GEMINI (maiatzak 21-ekainak 20)**

Gaur gauean parrandan ateratzeko asmoa baduzu, ez ahaztu barruko arropa gorria janzte. Ez daukazula?



### **CANCER (ekaina 21-uztailak 20)**

Urteari amaiera ona eman nahi diozula? Kezkak eta arazoak egun batez ahaztu, eta momentua gozatu!



### **SAGITARIUS (azaroak 24-abenduak 23)**

Urte guztian ikusi ez dituzun senide eta familiakoekin afaldu behar duzula gaur? Plan hoberik ez zegoen?



### **CAPRICORNIUS (abenduak 24-urtarrilak 20)**

Erakusleihan hainbeste aldiz ikusi duzun hori erosi! Azkenean begiekin jango duzu.



### **AQUARIUS (urtarrilak 21-otsailak 18)**

Aurten egin dituzun akatsetatik ikasi behar zenuke, datorren urtean ez errepikatzeko.



### **PISCIS (otsailak 19-martxoak 20)**

Urte berriarekin betebeharrugari jartzen dizkiozu zeure buruari. Hitz gutxiago eta ekintza gehiago behar da.



### **LEO (uztailak 21-abuztuak 23)**

Zauden bezala oso ondo zaudela diozu? Pertsona hori agertzen denean, ea horrela pentsatzen duzun.



### **VIRGO (abuztuak 24-irailak 23)**

Urtea mahatsa jaten amaitu beharrean, zergatik ez duzu beste zerbait jaten?



### **LIBRA (irailak 24-urriak 23)**

Olentzerori ez zenion idatzi, baina beste pertsona horri idatzi behar zenioke. Azaldu zure sentimenduak.



### **SCORPIUS (urriak 24-azaroak 23)**

Liburu bat oparitu dizutela? Badakizu horrek zer esan nahi duen. Zuzenago ezin

esan.

<http://www.berria.eus/zerbitzuak/horoskopia/>

## IRAKURRI AURRETIK:

- Erreparatu testuaren izenburuei, zeri buruzkoa izango dela uste duzue?
- Non aurkitu ahal dituzue honelako testuak?
- Zein ezaugarri izaten dituzte testu hauek?
- Zenbat zati daudela esango zenukete? Zeren arabera daude eginda zatiak?

## IRAKURRI ETA GERO:

- Nori zuzentzen zaio igorlea?
  - a. hurrei
  - b. gazteei
  - c. helduei
- Nortzuk dira festazale amorratuak?
- Nori idatzi behar dio Libra denak?
- Nolakoak dira uztailaren 10ean jaiotakoak?
- Bila ezazu zein zeinutakoak diren :
  - a. urtarrilaren 1ean jaiotakoak
  - b. apirilaren 20an jaiotakoak
  - c. zuen urtebetetze egunetan jaiotakoak
- Nortzuk dira alferrenak?
- Nolako da Virgo igorlearen ustez, klasikoa ala modernoa?
- Iragarpenak irakurri ondoren, zein zeinutakoak izatea gustatuko litzaizueke? Zergatik?
- Horoskopoaren iragarpenek egia esaten dutela uste duzue? Zergatik?

## EKINTZA OSAGARRIAK:

## IES Astrabudua BHI

- Bilatu “Horoskopo” hitzaren jatorria.
- Zeinu bakoitza ikur batekin lotzen da. Ikusten duzue hauen arteko erlaziorik?
- Asma ezazue zuen zeinuentzako iragarpena eta gero marraztu ikur berri bat.

